

EDITORIALA

Berriz ere, udarekin batera, 2015-16 ikasturte bukaerara iritsi gara. Hemen aurkezten dizuegun iprentsa ale berri honetan, 15.a hain zuzen ere, ikasturte honetako azken ebaluazioan egindako hainbat lan erakutsi nahi dizuegu. Baina Lauaizetan egiten dugun guztia ez da ikasgeletara mugatzen. Bertan egiten dugunaz gain, bizi izandako esperientzia desberdinen berri eman nahi dizuegu: irteerak, bidaiak, kirolak...

Hori guztia, eta gehiago da Lauaizetan egiten duguna. Horregatik oso garrantzitsua iruditzen zaigu zuek, ikus/irakurleok horren guztiaren berri izatea. Gure ikastetxean ekoiten dena erakuste lan horretan ezinbestekotzat jotzen dugu iPrentsak bete behar duen papera. Bost urte pasa dira proiektu hau martxan jarri genuenetik Gaur egungo teknologia digitalari esker komunikazio bideek aukera handia eskaintzen digute, eta hori da guk aprobetxatu nahi duguna, lan egiteko modu berriak ezagutu, bide berriak urratu, horrela, bide batez, gure konpetentzia digitala indartuz.

Ondo pasa udara!

Iprentsa Batzordea